

Asisko gutuna

2015ko Apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

78. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Lantzen ari garen espiritualtasunaren bigarren printzipioak Jainkoaren aurrean egian bizitzera garamatza. Eta horregatik sorkari xume aitortzen ditugu geure buruak bere handitasunaren aurrean. Eta horrek egiaz eskerturik, pozik bizitzera garamatza; maitatuak sentitzera, zainduak, gure pobretasunean zorionekoak izanik bizitzera garamatza.

Gogoetarako gaia

Pobre izatea

Pobre izatea honetan datza: giza bizitza duina bizi eta egin ahal izateko edonolako baliabideak faltan izatea. Gutako inork ez du pobre izan nahi. Hala ere gerta daiteke, hautu ideologiko, politiko, moralak ... direla eta, guk nolabaiteko pobretasun eta neurritasuna meritu gisa kontsideratzea pobre ez direnen aurrean. Gertatzen da, hainbat ingurumenetan ez duela inork bere aberastasuna nabarmendu nahi, baizik eta biziera xume eta nabarmenkeriarik gabea kontsideratzen dela egokia. Are gehiago, lehengo eskasia-garaiak gogortzeak halako distira-puntua ematen digu besteen aurrean: “Badakit, bai, zer den pobrezia jasatea”. Azpi-azpian, ordea, era batera edo bestera, halako bertute-maila bat lortzeko erabiltzen da pobre izatea. Halako lotura bat egiten dugu pobre izatearen eta ona izatearen artean, aberats eta gaizto izatearen artean.

Gutziz ezberdinki, Frantziskorengan pobretasuna apaltasunari lotua doa; ez da aberatsei, aberats izateagatik, egindako epaia; Jesusekin identifikatzea baizik, zeinek Jainkoa bezalako izaerari amore emateko eta giza bizitzaren miseria, muga-

tasun eta kontraesanez bete, bizitzeko pobretasuna bizitu baitzuen. Pobre izatea, aberastasuna eta jabetza erantztea da, eta Jainkoaren premian garela aitortzen hastea. Baina Jainkoaren premian izate hau ez da soilik barrukoa; pobretasunak ondorio ekonomiko, sozial, harremanari buruzkoak...ditu berekin. Frantziskoren pobre izatea, Jainko eta besteen aurrean bizi duen pobretasunaren islada da; beti bihotz apaltasunari lotua joango da. Horrela, pobretasuna ez da norbaiten kontra jaurtitzeko arma, ez eta imitatzeko bertute bat ere, baizik eta apaltasunaren dinamikaren momentu bat. Jainkoaren aberastasunera irekitzearen kristalizazioa da pobretasuna.

Pobretasuna izan da Frantziskorekin gehien lotutako ezaugarrietako bat: Frantzisko pobre eta apala. Baina Frantziskorentzat, pobretasun apal honen erreferentzia Jesu Kristo da eta haren Erreinuaren egitaraua: “Zorionekoak pobreak, haiena baita zeruetako Erreina”. Frantziskoren pobretasuna probokazio gertatu da beti, bera nolabait erreferentzia dugun guztiontzat.

Ebanjelioko pasartea: Lk 18,18-25

Handiki batek galdetu zion Jesusi: “Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondaretzat jasotzeko? Jesusek erantzun zion: “Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: Ez egin adulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ohoratu aita-amak”. Hark, orduan: “Gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia”. Hori entzutean, Jesusek esan zion: “Gauza bat falta zaizu oraindik: saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri”. Hitz hauek entzutean, guztiz atsekabetu zen handikia, oso aberatsa baitzen. Jesusek, handiki hura hain atsekabetua ikusirik, esan zuen: “Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan! Bai, orratzaren begitik gamelua sartzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino”.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Anaiek ez bezate ezer berentzat har, ez etxe, ez bizileku, ez besterik ezer. Eta mundu honetan erromes eta arrotz bezala, Jauna pobretasun eta apaltasunean zerbitzatuz, bihoaz konfiantzaz limosna eske. Eta ez dute zertan lotsaturik, Jauna guregatik behartsu egin baitzen mundu honetan. Hauxe da pobretasun txit gorenaren bikaintasuna, zuek, ene anaia maite-maiteok, zeruetako erreinuaren oinordeko eta errege bihurtu zaituztena, ondasunez behartsu eta bertutez aberats egin zaituztena. Hauxe izan bedi zuen ondasuna, biziaren lurrera daramana. Beroni, anaia maite-maiteok, oso-osorik itsatsita, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean ez dezazuela sekula zerupean besterik ezer eduki nahi” (2 Er 6,1-6).

Pobretasuna bizitzeko hautua salbatzailea da, maitasun eta errukiari lotua dagoenean. “Jauna *guregatik* behartsu egin zen”: behartsu maitasunez, guri bizia emateko eta gu aberasteko. Hauxe da pobretasun txit gorenaren bikaintasuna, Jesusek besarkatu zuena. Berari itsatsia dagoena Jesu Kristo Jaunari itsatsia dago. Bioz-berritzen hasi eta Jaunak legendunen artera, haiek errukiz tratatzea, eraman zuen une bere-tik ulertu zuen Frantziskok, maitasunak ezinbestez eramaten duela pobretasuna hautatzea, dena bestee-kin apaltasun eta eskuzabaltasunez jarriz.

Otoitza

Lur apalaren antzera handiusterik gabea,
pobretasunaren arropa janzten duena,
harrokeriaren menditik jaitsi eta
behartsuen haranean sartu dena
hura da Jainkoaren gizakia,
zure Hitza entzun eta
bere sustraien mirariak inbaditua izaten uzten dena,
horrela santutasunezko fruituak emateko eta
justiziaren zuhaitza maitasun-adarrez betetzeko.

Zeren eta soilik zutaz betea dagoenak, ene Jainko,
banatu zaitzake; ez horrela
berezaz puzturik dagoenak,
horrek bekatzuko egintzak, bere kontraesanak eta
larritasun guztiak eskaintzen eta ematen baititu.

Horrela, Jauna, edozein ugaritasunetik
inausi nahi dut neure bihotza,
beretik hustuta,
zuretzat leku izan dezan,
ene Jainko, zuretzat bakarrik,
Jesus bildots sakrifikatuarengan
ematen zaren horrentzat.

Pobretasunezko lur bihurtuko naiz, bada, Jauna,
lurrean ildo, nire hutsa bete dezan
hazi-alearen zain;
eta horrela zure euriaz aseko naiz,
niregan Espirituaren egintzak ureztatu
eta hazaraziko dituen euriaz.

Bizente Garcia Hernandez

Gutuneko azken hitzak

“Pobre izaten dakienak, guztia daki.” (Jules Michelet)

2015ko apirileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate apirileko erreferentzia guztiak:

1 Mt 26, 14-25	7 Jn 20,11-18	13 Jn 3, 1-8	19 Lk 24, 35-48	25 Mk 16,15-20
2 Jn 13, 1-15	8 Lk 24,13-35	14 Jn 3, 5a-7b-15	20 Jn 6, 22-29	26 Jn 10, 11-18
3 Jn 18,1-19,42	9 Lk 24,35-48	15 Jn 3, 16-21	21 Jn 6, 30-35	27 Jn 10, 1-10
4 Mk 16, 1-7	10 Jn 21, 1-14	16 Jn 3, 31-36	22 Jn 6, 35-40	28 Jn 10,22-30
5 Jn 20, 1-9	11 Mk 16, 9-15	17 Jn 6,1-15	23 Jn 6,44-51	29 Mt 11, 25-30
6 Mt 28,8-15	12 Jn 20, 19-31	18.Jn 6, 16-21	24 Jn 6,52-59	30 Jn 13, 16-20

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96

Apirileko otoitzaldia 30an izango da.